



Jon Corres - Mikel Delgado - Unai Zamorano
Aixerrota BHI, 2014-15

Aurkibidea

● Lutxo Egia	2
● Sarrera	3
● <i>Ezker hanka falta zuen</i>	
○ Kokapena	3
○ Gaia	3
○ Argumentua	4
○ Pertsonaiak	4
○ Istorioa	5
○ Baliabideak	6
○ Egituraketa	6
○ Iritzia	7
● Webgrafia	8

LUTXO EGIA

Lutxo Egia 1969ko abuztuaren 12an jaio zen, Santanderren. Hala ere, txikitatik Bilbon bizi da eta gaztea zela euskaldundu zen. Deustuko Unibertsitatean Soziologia Lizentziatua da, baina ez du inoiz arlo honetan lan egin. Kazetaritzan dihardu: *Deia*-n, *Administrazioa euskaraz*-en (IVAP aldizkaria), *Egunkaria*-n eta *Berria*-n kolaboratu du. Nontzeberri webgunea sortu zuen eta Hamaika Telebista sortzeko lantaldean egon da, Ibaizabal-Mendebalde Kultur Elkartearen kidea delarik. Nabarmentzekoa da “Euskara Jendea” ikus-entzunezko lanean parte hartu duela.

Bost obra kaleratu ditu 2011ra arte. *Kalezuloko animalien itzalak* (Pamiela, 1999) haurrentzako olerki liburua idatzi zuen, non olerkien

protagonistak animalia ezberdinak diren. 2002an *Paperezko hegazkinak* (Susa) eleberria argitaratu zuen. Nobela honek zerikusi handia du autoreak Londresen eta Dublinen igarotako bi urteekin. Garai hartan, komunikabide espainolen manipulazioaz konturatu zen; horregatik, gai hori eta historiaren ahanztura dira eleberriaren gai nagusiak.

Ezker hanka falta zuen 2005 urtean kaleratu zuen Susa argitaletxeak. Iñaki Gerena kronikagilearen eta bere ikasle gazteen istorioa kontatzen du eleberriak.



SARRERA

Ezker hanka falta zuen 2005 urteko eleberria da. Lutxo Egiak idatzitako nobela honetan, gai sakonak tratatzen dira, horien artean adiskidetasuna, adin nagusira heltzea eta Ibaizabal-Nerbioi itsadarraren inguruko hiri eta herrien bilakaera historian zehar.

Modu autobiografikoan dago idatzita nobela, baina protagonista Lutxo Egia gaztea den ala ez ezin dugu jakin. Izan ere, pertsonaiak fikziozkoak diren ala ez zehaztea zaila da, Iñaki Gerena izeneko kronikagile bati buruzko informaziorik ez baitago, baina Manuel Rivas benetako idazlea delako. XX. mende amaierako Sestaon eta ezkerraldean girotuta dago eleberri hau, baita Galiziako herri txiki batean ere. Ambiente horiek islatzen dituzte eleberriaren ezaugarri nagusiak. Hasteko, idazleak bi istorio paralelo kontatzen ditu, denbora ezberdinetan garatzen direnak eta bi leku ezberdinetan gertatzen direnak; bestetik, idazleak erabilitako estiloa oso landua da, kokapen batetik bestera jauzi egiten duelako idazleak. Bi ezaugarri horiek liburuari zailtasuna eta kalitatea ematen dizkiote aldi berean.

EZKER HANKA FALTA ZUEN

KOKAPENA

Ezker hanka falta zuen eleberriak kontatzen duen istorioa Sestaon eta Galiziako herri txiki batean dago kokatuta. Idazlearen bizitzaren bi etapetako kontakizunak direnez, kokapen bakoitzak garai bati dagokio. XX. mendeko amaierako Sestaon idazlearen nerabezaroa igarotzen da, bere lagunekin eta Gerena maisuarekin pasatzen duena. Orainaldian (Aste Santuko asteazkenetik astelehenera) eta Galiziako herri txiki batean idazlearen helduarroaren istorioa gertatzen da, non Gerenaren lehengusuaren herrixkan esaldi misterioitsu baten esanahia bilatzen duen.

GAIA

Ezker hanka falta zuen eleberria autobiografia txiki bat da, gizon baten bizitzaren bi garai kontatzen dituena. Nahiz eta Lutxo Egiaren benetako autobiografia ez izan, istorioa lehenengo pertsonan kontatzen duen pertsonaiarena da; ez du gai zehatzik. Hala ere, pertsonaia hori heldua nola bihurtzen den, bere gaztetako adiskidetasunak, bere helduaroko kezkak eta zalantzak, eta Gerenarengandik, maisu bihurtutako herren horrengandik, jasotako irakaspenak nobelan uneoro daude, eta horiek dira, hain zuzen ere, eleberriko gai nagusiak.

ARGUMENTUA

Iñaki Gerena kronikagilea hiltzen denean, bere hiletan biltzen dira bere ikasleak eta lagunak. Antzinako maisua galtzeak idazleari gaztetako garaiak berriz gogorarazten dizkio: Gerenarengandik ikasitako guztia, Ezkerraldea nola aldatuz joan zen, Riverreko partidak, Ezkerraldeko mugimendu sindikalak... Horrez gain, kronikagilearen lehengusuaren herrira doa, *Que vida...* hitz misteriosuen esanahiaren bila, Gerenak eskatu bezala.

PERTSONAIAK

- **Idazlea.** Ez da bere izena esaten istorio osoan. Sestaokoa izanik, Ezkerraldea maite du, eta bertako langile mugimenduetan egon zen sarturik gaztetan. Bere laguna Lolo bezala, Gerena kartzelan dagoenean ez du beraren alde egiten ezta berarekin erlaziorik edukitzen; hala ere, maisua hil eta gero bere lehengusuaren herrixkara doa bere azken nahia betetzera.
- **Gerena.** Protagonistaren maisua. Ezker hanka galdu zuen diabetesa zela eta. Oso maite zuen Ezkerraldea, eta maitasun hori bere ikasleei transmititzen saiatu zen. Langile mugimenduetan sartuta egoteagatik espetxeratzen dute. Istorioa aurrera joan ahala, kartzelatik bueltatzean, izaera tristeagoa izaten du.
- **Manuel Rivas.** Idazle galziarra. Benetako idazlea da eta, nahiz eta istorioan parte ez hartu, eragin nabaria du Gerenaren lehengusuaren herrixkan.
- **Garazi.** Protagonistaren lagun mina eta Gerenaren ikaslea. Protagonistarekin erlazio romantiko bat du baina amaiera onik gabe; horren ondorioz, kontaktua galtzen dute. Gerena kartzelan dagoen bitartean berarekin erlazioa mantentzen saiatzen den bakarra da.
- **Xenaro.** Gerenaren lehengusua, protagonistaren gidaria da Galiziako herrixkan.
- **Lolo.** Protagonistaren lagun mina, zahartzaroan aldendu egiten diren arren. Gerenaren atxiloketaren ondoren ez du bere alde egiten.

ISTORIOA

Protagonista Gerena bere lagun mina hiltzean haren herrixkara joaten da berak utzitako hitzen zentzuaren bila. Herrira ailegatu eta Gerenaren lehengusuarekin geratzen da, herrixkan beraren gidaria izango delako. Han idazteko asmoa duela adierazten die biztanleei, eta horretarako Manuel Rivas idazlearen telefono zenbakia behar duela. Hurrengo egunean Aste Santua hasiko denez Xenaroren etxean, Gerenaren lehengusua, geratu behar da herrixkan ez dagoelako ostaturik.

Protagonistaren bizitzan Manuel Rivas idazleak eragin handia du, bere lagun Garaziri bere liburu baten kopia bat sinatzeak, Lolo; bere laguna; protagonistari adiskidetasunaren zentzuaz galdetzen dio. Protagonista segidan konturatzen da galdera hori Garaziren eta protagonistaren arteko adiskidetasunari buruzkoa dela, iraganean amodio erlazio bat izan zutelako.

Hurrengo egunean, protagonistak esaten dio ez duela Xenarori idazteko asmorik. Bakarrik Gerenak utzitako hitzen esanahiaren bila ari zela, ondoren Bilbora bueltatuko zela. Hori eta gero, Xenarorekin janari bat du, horretan *que vida...* hitzei buruzko informazioa galdetzen dio, baina ez du ezer lortzen. Arratsaldean, herrixkan Aste Santua ospatzeko Kristoren pasioa interpretatzen dute.

Igandean Helena Ferrini omenaldi bat egin diote, honetan biztanleak kantan eta festetan ari dira. Azkenean, protagonistak alde egin aurretik, biztanleek pakete bat ematen diote. Hasieran protagonistak paketea Manuel Rivasen istorioen antologia bat dela pentsatzen du, baina paketea astelehenean emateko idatzita zegoen. Orduan paketea irekitzerakoan Manuel Rivasen liburu bat dela ikusten du, eta irekitzean Garaziri sinatutako kopia dela ikusten du eta hitz misterioitsuak egindako dedikatoria dela aurkitzen du.

Bitartean beste istoria bat kontatzen da, Gerenak hiru gazteak (Lolo, Garazi eta protagonista) ezagutzen dituenean. Euskal Herrian garatzen da, Bilboko itsasadarrean, Sestaon, eta Gerenaren hiletarekin du hasiera. 80ko hamarkadaren lehenengo urteetan hasten da, eta Gerenari esker hirukote gazteek ezagutzen dituzte Ezkerraldeak garai hartan bizi izan zituen arazo sozial eta ekonomikoak.

Gerenak ezker hanka galdu zuen 1982an; lagunek uste zuten gertakizun harrigarri baten ondorioz galdu zuela, baina azkenean jakin zuten diabetesak (gaixotasun bat) eraman ziola zangoa. Sestaoko Riverren gainean El Correo Español-en idatzi zituen kronikak, mezu ezkutuak eramaten zituzten: ezkerraldean gertatzen ari ziren mila guduren metaforak ziren. Gerenarekin zeuden hiru gazteen

kontzientzia hartze nabarmen bat gertatzen da inguruarekiko, industria ezker aldean (ontziola, meategi eta portuekin) eta inguruekiko (maitasuna, traizioa, adiskidetasuna eta miresmena).

Gerena espetxeratzea, manifestazio batean parte hartzeagatik, ondorio latzak eragin zituen gazteen eta Gerena arteko adiskidetasunean. Lehen hilabeteetan Garazik gutunak idazten zituen Gerena-arentzat, gazteen informazioa esanez, nola protagonistak hanka hautsi zuen, eta Lolo neska ilegorri batekin ibiltzen hasi zela. Baina denborarekin Loloren eta protagonistaren harremanak Gerena-rekin ahultzen joan ziren, kartzelan egotearen ondorioz.

BALIABIDEAK

Idazleak erabiltzen duen baliabide bat oso berezia da: liburu osoan ez du inoiz aipatzen protagonistaren izena. Narrazioa lehenengo pertsonan dago, idazlea omniszientea da, pertsonaia guztiek zer pentsatzen duten daki eta. Idazleak maiztasunez erabiltzen du flashback teknika, etengabe iraganera eta berri orainera itzuliz. Horrekin lortzen du orainean gertatzen diren gertakari askoren zergatia ulertzea.

Kapitulu batzuetan Lutxo Egiak lirika zatiak tartekatzen ditu istoriarekin (koplak eta olerki zati laburrak). Egiako elementuak erabiltzen ditu idazleak, baita fikziozkoak ere; beraz, suposa dezakegu istorioan zehar gertatzen diren gertakari batzuk idazleari berari gertatu zitzaiokiola.

EGITURAKETA

Ezker hanka falta zuen obrak egitura oso berezia du. Hamabi kapitulu laburretan banatuta dago istorioa, eta erabilitako idazkera ez da batere lineala, iragana eta orainaldia nahasten dira uneoro, modu korapilatsuan. Nahiz eta idazlea flashbackekin baliatu kapitulu bikoiti guztietan istorioa kontatzeko, horiek ez dute inolako sarrerarik eta ez dira inoiz nahasten orainaldia eta iragana kapitulu berean. Eta kapitulu bikoitietan protagonistak Gerena-rekin bizitako momentuak narratzen ditu. Bestalde, kapitulu askotan idazleak koplak eta olerki zatiak tartekatu ditu.

Egileak obra bi zatitan banatzen du, protagonistak Galizian dagoenean, kapitulu bikoitiak, asteke egunen izenak dramatzatenak (azteazkena, osteguna, ostirala, larunbata, igandea eta astelehena), eta hiru lagunek Gerena ezagutzen dutenean, eta hau beraien maisu eta gidari denean.

IRITZIA

Ezker hanka falta zuen eleberria irakurketa harrigarria da. Hasteko, idazlea ez da oso ezaguna; Lutxo Egiak literaturan egin baditu lanak, baina ez da euskal idazleen artean itzal handiko pertsona. Hala ere, kalitate handiko lana egiteko gai dela frogatu du idazleak eleberri honen bidez. Berezitasun harrigarriak ditu nobelak, eta horiek irakurketaz gozatzea ahalbidetzen dute. Hasi-hasieratik harrapatzen du irakurlea, hileta batean kokatzen. Lehenengo kapitulutik irakurleak badaki nobela ez dela izango kontakizun lineal tipikoa, hil den pertsonaiaren istorioaren berri izan beharko duelako nolabait, idazlearentzat oso garrantzitsua zela sumatzen delako. Era berean, idazlearen identitatea argitu gabe uzten da, eta horrela irauten du istorio osoan zehar.

Elementu errealak erabiltzen dituenek (Manuel Rivas idazle galiziarra, adibidez) ez dago argi nobela fikziozkoa den edo ez. Gainera, Iñaki Gerena izeneko kronikagile bati buruzko informaziorik ez dago eta Lutxo Egiaren bizilekua Bilbo izan da txikitatik, eta horrek irakurlea gehiago nahasten du. Baliteke egilearen gaztaroan oinarritutako esperientziak izatea eleberrian agertzen direnak, geroago idazleak literatura bihurtu dituenak. Dena den, horiek ez dira lehenengo kapitulu horretan dauden berezitasun bakarrak; Garazik koplak bat errezitatzen du, eta obran horrelako gehiago daude.

Hortaz, Lutxo Egiak genero narratiboaren barruan lirika pixka bat sartzen du noizean behin. Bigarren eta hirugarren kapituluek eleberriak duen egitura modu argian islatzen dute: kapitulu batek orainaldia kontatzen du eta hurrengoak iragana. Saltoka egiten du aurrera istorioak, eta bi protagonista ezberdin aurkezten dizkigu idazleak: alde batetik, idazle gaztea, Gerenaren ikaslea, bizitzaz gutxi zekiena eta Sestaotik gainerako mundua ulertzen saiatzen dena; bestetik, idazle heldua ezagutzen dugu, bere maisuaren azken nahia betetzen saiatzen dena eta bere bizitza helduarekin erabat pozik ez dagoena. Lehenengo pertsonaiaren bidez Sestao zaharra ezagutzen dugu: Sestao industrialak, langile mugimenduetan oparoa, bere taberna zahar eta auzokideekin. Bere heltze prozesua ezagutzen dugu, Gerenarengandik ikasitakoak ikasten ditugu eta maisua baztertzeko duen momentua ikusten dugu. Idazle helduaren eskutik, idazle batek babestutako herri txiki baten historia harrigarria ezagutzen dugu eta nerabegaroko lagunekin izandako gatazkak ezagutzen ditugu. Hori benetan txundigarria da, bi istorio ezberdin, eta aldi berean istorio berdina, direlako.

Egia da obra ez dela irakurtzeko erraza. Gerenak eta pertsonaiek egindako hausnarketa batzuk nahiko sakonak direlako. Horrez gain, idazleak erabilitako euskara oso landua da, bizkaierazko hainbat terminorekin. Horrek, euskara batuan

hitz egitera eta irakurtzera ohituta dagoen euskaldun bati arazoak sor diezazkioke. Nolanahi ere, ez dago ukatzerik *Ezker hanka falta zuen* nobela ederra dela, oso modu landuan kontatuta dagoena eta heltzea modu paregabearen irudikatzen duena.

WEBGRAFIA

- <http://susa-literatura.eus>
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Lutxo_Egia
- <http://www.euskomedia.org/aunamendi/37037>
- <http://kritikak.armiarma.eus/>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>